

OSTERATXO BAT PARKEAN

Testua eta irudiak: ANTHONY BROWNE

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 24,8 x 32 cm. 32 or. 15 €.

Osteratxo bat parkean (euskara)

ISBN 978-84-7681-771-1. Kalandraka-Pamiela

Un paseo polo parque (galego)

ISBN 978-84-8464-687-7. Tras os montes.

Una pasejada pel parc (katalana)

ISBN 978-84-8464-820-8. Kalandraka.

Um passelo pelo parque (portugesak)

ISBN 978-989-749-005-7. Livros para sonhar.

Goiz batean, Iriarte jauna eta Argi alaba, Fernando txakurra hartuta, paseatzera irten ziren.

Goiz hartan bertan, Uriarte andrea eta Pintto semea,

Isabel txakurra hartuta, paseatzera atera ziren.


Argi, Iriarte jauna eta Fernando parkera sartu ziren.

Uriarte andrea, Pintto eta Isabel ere parkean sartu ziren...

“Osteratxo bat parkean” bi istorio paraleloz osatutako istorioa da; haurren eta beraien txakurren naturaltasun eta xalotasunari esker bi istoriook bat egiten dute; bitartean, Argiren aitak eta Pinttoren amak ez diote elkarri begiratu ere egiten parkean emandako denbora guztian.

Helduen inkomunikazioa eta indibidualtasuna kontraste nabarmenean azaltzen dira gazteen interakzioarekin eta txakurren jokamoldearen erabateko askatasunarekin.

“Osteratxo bat parkean” liburuko gauzarik deigarriena –Anthony Browne-ren haurrentzako lehenetariko albuma- ilustrazioei arretaz erreparatu behar zaiela da; izan ere, kontakizunarekin zerikusirik ez duten xehetasunez beteta daude: Barraud-en *His master's voice* margolanari egindako omenalditik Tarzan edo Charlot-en irudietara; bestelako keinu jolasgarriak ere baditu: giza itxura duten itzalak, enborrak edo eserleku-hankak eta baso enigmatiko batean dabilzan pertsonaia bitxiak.



■ **Galak:** adiskidetasuna vs. inkomunikazioa.

■ **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** 1977ko klasiko bat; “Urdaburutarrak”, “Kezkamuxelak”, “Nola sentitzen zara?” eta “Gorila bat. Zenbatzeko liburua” obren egile berarena; haurren naturaltasuna helduen bakartzearen aurrean; testu lañoa; ikusizko irakurketa, ñabardura surrealista dituzten ilustrazioak; erreferentzia kulturalak.

Anthony Browne

(Sheffield, Ingalaterra, 1946)

Leeds College of Art delakoan graduaturik, diseinu grafikoan espezializatu zen. Giza irudia irudikatzeke lehia perfektionista haren lehen lanetako eraginetik dator, Manchesterreko erietxe bateko medikuntza gaietako marrazkigile aritu baitzen. Haurrentzako ilustrazioetarako joera geroagoko aldi batean sortu zitzaion, zorion txartelak diseinatzen zituenekoa. Browneren estiloan atzeman daiteke margolari surrealistikoko, eszena onirikoekiko eta elementu bitxiakiko interesa. Bere ibilbidean jaso dituen sari aipagarrienak dira Kate Greenaway Domina, Kurt Maschler Saria eta Children's Laureate 2009 Domina. Hala ere, guztien gainetik, Hans Christian Andersen Saria dago, bere obra osoagatik 2000. urtean eman baitzioten. Itzal handieneko egile ingelesetarikoa bat da, batez ere irakurtzeko, begiratzeko eta lengoia plastikoarekin erlazionatzeko bide berriak zabaltzeko ahaleginagatik. Horren adibide bikainak dira “Urdaburutarrak”, “Kezkamuxelak”, “Nola sentitzen zara?” eta “Gorila bat. Zenbatzeko liburua”. Browneren lanak kultur eta arte-erreferentziez betetako unibertsoa sortu du, edozein adinetako irakurleak testua osatzeko eta interpretatzeko duen adimena probatzen duten ikus-arrasto eta giltzari ugari azaltzen baititu.

www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.  Pamiela.com
etxea
soltxate@pamiela.com